

# Atzeritartasun arloan OHIKO GALDERAK

 **Biltzen**

Gizartearen eta Kulturaren Birkidatzaren Euskal Zerbitzua  
Servicio Vasco de Integración y Convivencia Intercultural

 **EUSKO JAURLARITZA**  
GOBIERNO VASCO



MIGRAZIORAKO  
EUSKAL  
ITUN SOZIALA

**PACTO SOCIAL  
VASCO PARA  
LA MIGRACIÓN**

# Atzerritasun arloan OHIKO GALDERAK

*Egunaratze data: 2024ko urtarrilaren 1a*

1. Nola lor dezaket bizitoki-baimena Espainian hiru urte badaramatzat?
2. Nola legeztatu behar dut nire jatorri-herrialdeko aurrekari penalen ziurtagiria?
3. Nola eskura dezaket errotzeagatiko bizitoki-baimena, prestakuntza jasotzeko?
4. Nola legeztatu behar dut nire jatorri-herrialdeko aurrekari penalen ziurtagiria?
5. Eska al dezaket bizitoki-baimena Espainiako nazionalitatea duen adin txikiko baten aita edo ama banaiz?
6. Zer egin dezaket egoera irregularrean dagoen eta genero-indarkeriaren biktima den emakume atzerritarra banaiz?
7. Nola lor dezaket ikasle gisa egonaldia?
8. Ikaslea banaiz, zer eskakizun bete behar dut enplegua bilatu ahal izateko bizitokia lortzeko?
9. Zer da AIZ?
10. Zer egin behar dut atzerritarren nortasun-txartela (TIE, gaztelaniaz) galtzen badut?
11. Noiz elkar ditzaket berriro nire senideak?
12. Zenbat denbora eman dezaket Espainiatik kanpo nire bizitoki-baimenarekin?
13. Zer epe dut bizitoki- eta lan-baimena berritzea eskatzeko?
14. Zer unetan eska dezaket iraupen luzeko bizitoki-baimena?
15. Zer txosten eska diezazkioket Eusko Jaurlaritzari atzerritasun-prozedura batean aurkezteko?
16. Nola aurkez dezaket eskaera bat Atzerritarren Bulegoan?
17. Zer izapidetze egin behar dut Europar Batasuneko herritarra banaiz?
18. EBko edo EEEko herritar batekin ezkondata banago, nora jo behar dut bizitoki-txartela eskatzeko?
19. Atzerritarren Bulegoaren aurrean baimen-eskaera aurkeztu dut. Non kontsulta dezaket nire espedientearen egoera?
20. Zein dira eskaera-eredu ofizialak?
21. Zein dira ordaindu beharreko tasak? Nora jo dezaket atzerritasun arloko aholkularitza jasotzeko?

## 1. Nola lor dezaket bizitoki-baimena Espainian hiru urte badaramatzat?

Gutxienez hiru urtez Espainian modu jarraituan egon izana da Errotze Sozialagatiko bizitoki-baimena lortzeko eskakizunetako bat.

Gainera, beste baldintza batzuen artean, ez da aurrekari penalik izan behar eta laneko kontratu bat edo gehiago izan behar dira, gutxienez, lanbide arteko urteko gutxieneko soldata bermatuko dutenak; edo, hala dagokionean, behar adina baliabide ekonomiko izan behar dira (norbere kontura garatutako jarduera batetik eratorriak, adibidez).

Haren ardurapean adin txikikoak dituela ziurtatuz gero, gutxienez 20 orduko iraupena duen kontratu bat aurkez daiteke.

\*Lan-kontratuaren baldintzarekin lotuta, kontuan izan behar da langileen kontratazioaren markoan jarduketa-irizpide berriak ezartzen dituen abenduaren 28ko 32/2021 Errege Lege Dekretuaren lan-errefera, hark lehentasuna ematen baitio kontratu mugagabeari.

Esteka:

- Behin-behineko bizitoki-baimena egoera ezohikoengatik. Errotze soziala (informazio-orria)

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/autorizacion-residencia-temporal-por-circunstancias-excepcionales.-arraigo-social>

## 2. Nola lor dezaket bizitoki-baimena Espainian bi urte badaramatzat?

Gutxienez bi urtez Espainian modu jarraituan egon izana da Lan Errotzeagatiko bizitoki-baimena lortzeko eskakizunetako bat.

Gainera, beste gauza batzuen artean, azken bi urteetan lan-harremanak izan dituela ziurtatu behar du, legezko egonaldi- edo bizitoki-egoeran. Horretarako, besteren konturako lan-jarduerak, gutxienez, astean 30 ordukoa izan behar du (6 hilabetean zehar) edo astean 15 ordukoa (12 hilabeteko epean). Norbere konturako lanaren kasuan, gutxienez, 6 hilabeteko jarduera jarraitua ziurtatu behar da. Eskatzaileak egoera irregularrean egon behar du eta ez du aurrekari penalik izan behar.

Esteka:

- Behin-behineko bizitoki-baimena egoera ezohikoengatik. Lan-errotzea (informazio-orria).

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/autorizacion-residencia-temporal-por-circunstancias-excepcionales.-arraigo-laboral>

### 3. Nola eskura dezaket errotzeagatiko bizitoki-baimena, prestakuntza jasotzeko?

Gutxienez bi urtez Espainian modu jarraituan egon izana da Prestakuntzarako errotzeagatiko bizitoki-baimena lortzeko eskakizunetako bat.

Gainera, beste baldintza batzuen artean, eskatzaileak konpromisoa hartu behar du enplegurako prestakuntza arautua jasotzeko, profesionaltasun-ziurtagiri bat eskuratzeko, gaitasun teknikoaren ziurtagiria eskuratzera bideratutako prestakuntza bat jasotzeko, lanpostu baterako beharrezkoa den prestakuntza profesionala jasotzeko edo mikrokredentzialak lortzeko . Bestela, unibertsitateetako prestakuntza iraunkorrari dagokionez, konpetentziak eta trebetasunak (prestakuntza arlokoak edo profesionalak) zabaltzeko edo eguneratzeko ikastaroak egiteko konpromisoa hartu behar du. Matrikulazioa hiru hilabeteko epean egin behar da, bizitoki-baimena ematen duen ebazpena jakinarazten denetik.

Esteka:

- Behin-behineko bizitoki-baimena egoera ezohikoengatik.  
Lan-errotzea (informazio-orria).

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/arraigo-formacion>

#### 4. Nola legeztatu behar dut nire jatorri-herrialdeko aurrekari penalen ziurtagiria?

Horiek igorri dituen herrialdearen arabera, legeztatzeko hainbat modu dago:

- Dokumentua igorri duen herrialdea 1981eko urriaren 5eko Hagako Hitzarmenean sartuta badago, ohar gehigarri bidez.
- Diplomaziaren bidez legeztatuta, dokumentua igorri duen herrialdea Hagako Hitzarmenean sartuta ez badago.

Dokumentuak, edonola ere, gaztelaniara itzulita (zinpeko itzulpena) egon beharko du.

Estekak:

- Dokumentuak legeztatzea eta itzultzea atzerriartasun eta immigrazio arloko prozedurak izapidetzeko.

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/legalizacion-y-traduccion-de-documentos-para-la-tramitacion-de-procedimientos-en-materia-de-extranjeria-e-inmigracion>

- Zinpeko itzultzaile-interpreteen zerrenda:

<https://www.exteriores.gob.es/es/ServiciosAlCiudadano/Paginas/Traductores-Interpretes-Jurados.aspx>

## 5. Eska al dezaket bizitoki-baimena Espainiako nazionalitatea duen adin txikiko baten aita edo ama banaiz?

Familia-errotzearekin lotutako bizitoki-baimena Espainiako nazionalitatea (edo komunitatekoa) duen adin txikikoaren aitaren edo amaren kasuan eskatzeko aukera egongo da baldin eta adin txikikoa bere kargura badago eta elkarrekin bizi badira, edo betebehar paternofilialak egunean baditu.

Esteka:

- Behin-behineko bizitoki-baimena egoera ezohikoengatik. Familia-errotzea (informazio-orria).

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/autorizacion-residencia-temporal-por-circunstancias-excepcionales.-arraigo-familiar>

## 6. Zer egin dezaket genero-indarkeriaren biktima den emakume atzerritarra banaiz?

Agintaritza fiskalak emandako babes-aginduekin edo genero-indarkeriaren zantzuak daudela zehazten duen Ministerio Fiskalaren txostenarekin, behin-behineko bizitoki- eta lan-baimena eska daiteke. Aparteko gorabeherak direla eta aldi baterako bizitoki-baimena behin betikoz **emateko**, beharrezkoa izango da prozedura penala zigor-epaiarekin edo emakumea genero-indarkeriaren biktima izan dela ondorioztatzen duen ebazpen judizialarekin amaitzea; kasu hauek barne: inputatua non dagoen jakiterik ez dagoelako auzia artxibatzea edo salatua kanporatu izangatik behin-behinean auzia largestea.

Babes horrek, gainera, adin txikoak diren edo desgaitasuna duten seme- alabak ere hartuko ditu salaketaren unean Espainian badaude.

Esteka:

- Behin-behineko bizitoki- eta lan-baimena egoera ezohikoengatik. Genero-indarkeriaren biktima diren emakume atzerritarrak (informazio-orria).

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/autorizacion-de-residencia-temporal-y-trabajo-por-circunstancias-excepcionales-de-mujeres-extranjeras-victimas-de-violencia-de-genero-o-de-violencia-sexual.-incluye-anexo-de-autorizacion-de-trabajo>



## 7. Nola lor dezaket ikasle gisa egonaldia?

Ikasle-bisaren eskaera Misio diplomatikoaren edo Espainiako bulego kontsularraren aurrean aurkeztu beharko da edo, bestela, prozedura Atzeritarren Bulegoaren aurrean abiarazi baimena edo bisa (legezkoa dena) iraungi baino hilabete bat lehenago gutxienez. Baimena indarrean dagoen artean besteren konturako edo norbere konturako jarduerak egin daitezke, betiere jarduera horiek ikasketekin bateragarriak badira eta astean 30 ordu gainditzen ez badituzte. Honako kasu hauetan, ikasketengatiko egonaldiaren baimenak besteren kontura eta norbere kontura lan egitea baimentzen du, berariazko baimen bat eskatu beharrik gabe: goi-mailako ikasketak, enplegurako prestakuntza arautua, profesionaltasun-ziurtagiria eskuratzera bideratutako prestakuntza edo lanpostu zehatz baterako beharrezko trebakuntza profesionala. Gainerako kasuetan, besteren kontura edo norbere kontura lan egiteko dagokion baimena eskatu behar da.

Ikasketak gairitu izana ziurtatu ondoren, ikasleak haren egonaldi-baimena aldatu dezake, eta bizitoki-baimen bat eta lan-baimen bat eskatu, lan-kontratu bat aurkeztuta.

Estekak:

- Ikasketekin lotutako egonaldiak (informazio-orria)  
<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/estancia-por-estudios>
- Ikasteko egonaldia aldatzea, eta bizitzeko eta lan egiteko egonaldia eskuratzea (informazio-orria)  
<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/modificacion-de-la-situacion-de-estancia-por-estudios-investigacion-formacion-o-practicas-a-la-situacion-de-residencia-y-trabajo-por-cuenta-ajena-inicial>

## 8. Ikaslea banaiz, zer eskakizun bete behar dut enplegua bilatu ahal izateko bizitokia lortzeko?

Enplegua bilatzeko edo enpresa-proiektu bati ekiteko bizitoki-baimena eskatzeko aukera baldintza hauek betetzen dituen ikasle atzerritarri bakarrik aitortzen zaio: aurrez ikasketak egiteko egonaldi-baimena duen titularra den, Espainiako baimendutako goi mailako hezkuntza-erakunde batean ikasketak amaitu dituen eta gutxienez Kualifikazioen Europako Esparruaren arabera 6. maila lortu duen atzerritarra. Baimenak hogeita lau hilabeteko gehieneko iraupen luzaezina izango du.

Esteka:

- Bizitoki-baimena, lana bilatzeko (informazio-orria)

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/autorizacion-de-residencia-para-busqueda-de-empleo-o-inicio-de-proyecto-empresarial-hi-106->

## 9. Zer da AIZ?

AIZ identifikazio-helburuetarako erabiltzen den zenbaki pertsonal, bakar, eksklusibo eta sekuentziala da.

Haien interes ekonomikoak, profesionalak edo sozialak direla eta Espainiarekin harremana duten atzerritarrei AIZ emango zaie.

Zenbaki hori izango da identifikatzailea, eta izapidetzen edo igortzen zaizkion dokumentu guztietan eta bere nortasun-txartelean edo pasaportearen estanpatzen diren diligentzietan jaso beharko da.

## 10. Zer egin behar dut atzerritarren nortasun-txartela (TIE, gaztelaniaz) galtzen badut?

Espainian egoera legala egiaztatzeko helburua duen atzerritarrentzako identifikazio-agiria da.

Sei hilabete baino gehiagoko aldirako Espainian egoteko baimena edo bisa eman zaien pertsona guztiei ematen zaien txartela da.

Lapurtu, galdu, suntsitu edo erabilezin bihurtuz gero, kopia bat eskatzeko aukera dago.

Esteka:

- TIE eskatzea (informazio-orria)

<https://www.interior.gob.es/opencms/es/servicios-al-ciudadano/tramites-y-gestiones/extranjeria/regimen-general/tarjeta-de-identidad-de-extranjero/>

## 11. Noiz elkar ditzaket berriro nire senideak?

Araubide orokorrean, familia elkartzeko eskubidea erabil daiteke familia elkartu nahi duen pertsona hori gutxienez urtebetez Espainian **bizi** izan

bada eta gutxienez beste urtebetez bertan bizitzeko baimena lortu **badu** (arbasoen kasuan, iraupen luzeko bitoki-baimenaren titularra izatea eskatzen da).

Beharrezkoa izango da etxebizitza egokia izatea familiaren beharrei erantzun ahal izateko behar adina bitarteko ekonomiko ziurtatzea IPREM adierazleak ezarritako baremoaren arabera. Zenbateko hori murriztu egin daiteke adin txikikoen eta ordezkatuaren kasuan.

Esteka:

- Familia berriz elkartzeko aldi baterako bitoki-baimena (informazio-orria)  
<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/autorizacion-de-residencia-temporal-por-reagrupacion-familiar>

## 12. Zenbat denbora eman dezaket Espainiatik kanpo nire bizitoki- baimenarekin?

Titularra zaren bizitoki-baimen motaren arabera izango da hori.

Aldi baterako bizitokiko eta laneko edo bizitokiko baimena bukatu egingo da urtebeteko aldian Espainiatik kanpo sei hilabete baino gehiago ematean. Iraupen luzeko bizitoki-baimenaren kasuan, aldiz, iraungipena Europar Batasuneko lurraldetik kanpo hamabi hilabetez jarraian egon izateagatik gertatzen da.

Batasuneko hiritarraren senidearen bizitoki-txartelaren kasuan, indarraldia iraungi egingo da urtebetean sei hilabete baino gehiagoz kanpoan egonez gero. Eta bizitokia iraunkorra balitz, eskubidea galduko litzateke bi urtez jarraian baino gehiagoan Espainiako lurraldetik kanpo egonez gero.

\*Auzitegi Gorenak, 2023ko epaian, baliogabetzat jo zuen aldi baterako Espainian bizitzeko baimena iraungitzen duen artikulua, sei hilabete ez egoteagatik.

### 13. Zer epe dut bizitoki- eta lan-baimena berritzea eskatzeko?

Baimenaren indarraldia amaitu baino 60 egun natural lehenagoko tartean eskatu beharko da. Horrez gain, hurrengo 90 egun naturaleko epe barruan ere aurkezteko aukera egongo da.

Estekak:

- Aldi baterako bizitoki- eta besteren konturako lan-baimena berritzea (informazio-orria).
- <https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/renovacion-de-la-autorizacion-de-residencia-temporal-y-trabajo-por-cuenta-ajena>
- Aldi baterako bizitoki- eta norberaren konturako lan-baimena berritzea (informazio-orria).

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/renovacion-de-la-autorizacion-de-residencia-temporal-y-trabajo-por-cuenta-propia>



## 14. Zer unetan eska dezaket iraupen luzeko bizitoki-baimena?

Bizitoki-baimen mugagabe hori lortzeko hainbat kasu dago. Haietako bat da Espainiako lurraldean legez eta modu jarraituan bost urtez bizi izana.

Esteka:

- Iraupen luzeko bizitokia (informazio-orria).

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/autorizacion-de-residencia-de-larga-duracion-hi-46->

## 15. Zer txosten eska diezazkioket Eusko Jaurlaritzari atzerriartasun-prozedura batean aurkezteko?

Txosten mota ugari dago:

ERROTZE TXOSTENARI esker, errotze soziala dela eta ezohiko gorabeheren ondorioz bizitoki- eta lan-baimena eskatu nahi duten atzerriarrek behar adinako gizarteratze maila ziurtatzen duten elementuak aurkez ditzakete. Txostena Eusko Jaurlaritzak igortzen eta Administrazio Zentralak aztertzen du aipatutako baimena eman ahal izateko.

INTEGRAZIOA SENDOTZEKO TXOSTENARI esker, bizitoki-baimenak edo bizitoki- eta lan-baimenak berri behar dituzten atzerriarrek beren gizarteratzea edo integrazioa ziurtatzen duten elementu berriak aurkez ditzakete. Berritze horietarako eskakizun guztiak betetzen direla egiaztatu ezin denean bakarrik aurkeztu beharko da txosten hori.

ETXEBIZITZAREN EGOKITASUN TXOSTENARI esker, beren ohiko bizitokia Euskadiko udalerrri batean duten pertsonak etxebizitzaren egokitasuna egiaztatu dezakete. Baldintza hori derrigor bete beharrekoa da familia elkartearekin lotutako bizitoki-baimena eskatzeko.

Estekak:

- Txostena eskatzea  
<https://www.euskadi.eus/atzerriartasun-txostenak/web01-a2famil/eu/>
- Zuzenean aurretiazko hitzordua  
<https://www.euskadi.eus/eusko-jaurlaritz/zuzenean-herritarrentzako-zerbitzua/>

## 16. Nola aurkez dezaket eskaera bat Atzerritarren Bulegoan?

Eskaerak modu presentzialean aurkezteko, beharrezkoa da aldez aurretiko hitzordua lortzea.

Berritzeen kasuan, erregistro publiko batera joateko aukera egongo da. Era berean, hasierako eskaerak zein berritzeak Mercurio Plataformaren bidez modu telematikoan egiteko aukera dago; dena den, horretarako beharrezkoa da ziurtagiri digitala izatea.

Estekak:

- Aurretiko hitzordua  
<https://icp.administracionelectronica.gob.es/icpplus/index.html>
- Informazio-bulegoak eta erregistroa  
<https://ssweb.seap.minhap.es/icpplus/citar?org=OIACR&locale=es>
- Mercurio Plataforma  
<https://sede.administracionespublicas.gob.es/pagina/index/directorio/mercurio2>

## 17. Zer izapidetze egin behar dut Europar Batasuneko herritarra banaiz?

Europar Batasuneko kide den estatu bateko, Europako Esparru Ekonomikoko Akordioan parte hartutako beste estatu bateko edo Suitzako herritarrek, sei hilabete baino gehiagoko aldiari Espainiako estatuan bizitzeko asmoa badute, derrigor eskatu beharko dute Atzerritarren Erregistro Zentralean izena ematea.

Esteka:

Batasuneko herritarren erregistro-ziurtagiria (informazio-orria).

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/certificado-de-registro-de-ciudadano-de-la-union-europea-hi-101->

## 18. EBko edo EEEko herritar batekin ezkontuta banago, nora jo behar dut bizitoki-txartela eskatzeko?

Batasuneko herritarraren senide-txartela eskatu beharko duzu Atzerritarren Bulegoaren aurrean modu presentzialean aurretiko hitzorduarekin edo modu telematikoan.

Dena den, Atzerritarrek Espainian dituzten Eskubide eta Askatasunei buruzko eta Atzerritar horiek Gizarteratzeari buruzko 4/2000 Lege Organikoaren Erregelamendua aldatzen duen uztailaren 26ko 629/2022 Errege Dekretuak aldaketak txertatu ditu Familia Errotzearen figuran, eta barne hartu du espainiar hiritarraren ezkontidea edo izatezko bikotekide ziurtatua. Halaber, familia-errotzea eska dezakete nazionalitate espainiarra duen hiritarraren edo haren ezkontidearen edo izatezko bikotekidearen 65 urtetik gorako arbasoek; 65 urtetik beherako arbasoek, horien kargura badaude; 21 urtetik beherako ondorengoek; edo 21 urtetik gorako ondorengoek, horien kargura badaude.

Estekak:

- Batasuneko Herritarraren Senidearen Bizitoki Txartela (informazio-orria):  
<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/tarjeta-de-residencia-de-familiar-de-ciudadano-de-la-union-europe-hi-102->
- Familia-errotzeagatiko aparteko egoeren baimena:  
<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/w/autorizacion-residencia-temporal-por-circunstancias-excepcionales.-arraigo-familiar>

## 19. Atzerritarren Bulegoaren aurrean baimen-eskaera aurkeztu dut. Non kontsulta dezaket nire espedientearen egoera?

Administrazio Publikoen Estatuko Idazkaritzaren Egoitza Elektronikoaren bidez kontsulta dezakezu espediente-zenbakia edo AIZ baldin baduzu. Era berean, zure eskaera aurkeztu duzun Atzerritarren Bulegoari egin diezazkiokezu kontsultak, horretarako gaitutako formulario baten bidez.

Estekak:

- Atzerritartasuneko espedientearen egoerari buruzko informazioa  
<https://sede.administracionespublicas.gob.es/infoext2/consulta.html>
- Kontsulten formularioa  
<https://sede.administracionespublicas.gob.es/ayuda/consulta/ExtranjeriaCG>

## 20. Zein dira eskaera-eredu ofizialak?

Hainbat eskaera-eredu daude, eskatutako baimenaren edo hasi nahi den prozeduraren arabera.

Eskatzailearen eta baimen-motaren datuak bete behar dira.

Kontuan hartu behar da komunikazioak eta jakinarazpenak bitarteko elektronikoen bidez egiteko baimena markatuz gero, ziurtagiri elektronikoa izan beharko duzula dokumentuaren edukira sartzeko (Lurralde Politikaren eta Funtzio Publikoaren Ministerioaren egoitza elektronikoan: <https://sede.administracionespublicas.gob.es>).

Esteka:

- Eredu ofizialak, atzeritarren dokumentazioaren arloko prozedurak hasteko eska daitezkeenak:

<https://www.inclusion.gob.es/web/migraciones/modelos-generales>

## 21. Zein dira ordaindu beharreko tasak?

Eskaera tramitera onartzen den unean ordaindu behar dira tasak: 790 eredia 052 kodea, bizitoki-baimenaren tasari dagokiona eta atzerritarrak ordaindu beharrekoa; eta, hala dagokionean, 790 eredia 062 kodea, lan-baimenaren tasari dagokiona eta enplegu-emaileak ordaindu beharrekoa.

Estekak:

- <https://sede.administracionespublicas.gob.es/pagina/index/directorio/tasa052>
- <https://sede.administracionespublicas.gob.es/pagina/index/directorio/tasa062>

Polizia Etxean Atzerritarraren Nortasun Agiria (ANA) eskatzean beste tasa bat ordaindu behar da, 790 eredia 012 kodearen bidez.

Esteka:

- [https://sede.policia.gob.es/Tasa790\\_012/](https://sede.policia.gob.es/Tasa790_012/)



## 22. Nora jo dezaket atzerritartasun arloko aholkularitza jasotzeko?

Kontsulta telefonoz edo posta elektronikoz egin dezakezu:

**Biltzen** tel. 900 840 890 / 94 400 18 09 (09:30-14:00)

[asesoria@euskadi.eus](mailto:asesoria@euskadi.eus) / [juridika@biltzen.org](mailto:juridika@biltzen.org)

Eta arreta presentziala izateko, Atzerritartasunaren alorreko Euskal Zerbitzu Juridikoa (Aholku Sarea) hitzarmena duten erakundeengana jo dezakezu.

Esteka:

- Aholku Sarea

<https://www.euskadi.eus/asesoramiento-extranjeria/web01-a2famil/es/>